BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

1065

EBAZPENA, 2017ko otsailaren 28koa, Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena, zeinaren bidez irekitzen baita eskabideak aurkezteko epea 2017-2018 ikasturterako itun berriak zehazteko.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2016ko apirilaren 27ko Aginduaren bidez, deialdia egin zen 2016/2017 eta 2021/2022 arteko ikasturteetako hezkuntza-itunak sinatzeko eta berritzeko, eta 2016/2017 ikasturterako zenbat unitate itunduko diren zehazteko.

Agindu horren III. kapituluan ezartzen ditu ikasturteka itundu beharreko unitateak zehazteko eskakizunak eta prozedura.

Hori dela eta, agindu horren 13.2 artikuluan xedatutakoarekin bat, hau

EBAZTEN DUT:

Jakitera ematea ireki dela eskabideak aurkezteko epea 2017/2018 ikasturterako itun berriak zehazteko; epe horrek 2017ko martxoaren 1etik 2017ko martxoaren 31ra iraungo du, biak barne.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko otsailaren 28a.

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea,
OLATZ GARAMENDI LANDA.